

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua erosi behar dituztenak ondo identifikatuta egon behar dira, hauek oso garrantzi handia dutelako. Gure txirrinduak edozeinek erosi ditzake baina gu publiko zehatz batean zentratuko gara.



LUB-ek gizarteak ahaztu dituen pertsonak gogorarazi nahi ditu, hori dela eta, helbarrientzako txirrindu elektriko bat sortu dugu baliabide zein independentzia gehiago izan dezaten.

Hasteko, gure proiektua Espania mailan zentratuko dugu, gu zehaztengaren publikoko eredu asko dagoelako. LUB-ek arrakasta handia izango balu, hurrengo pausoa gure enpresa Europa mailara zabaltzea izango litzateke. Baina, hau dena posible izateko, egokia ikusi dugu, gure herrialdeko jendearekin hastea proiektu hau.



Badakigu, adin altuetan motrizidade zein beste zentzumenen kapazitatea galtzen dela. Horregatik gure txirrinduak erabiltzeko gomendatzen dugun adina 16 urtetik 65 urtetara da, baina, muga hauetatik kanpo dagoen jendearen segurtasuna bermatzeko hainbat instrumentu ditugu.

Aktibitate fisikoa edozein bizitza duinaren oinarria da, baina, mobilitate ahalera guztiak ez dituztenek zailagoa ikusten dute aktibotasun bat mantentzea. Hau baliabide falta zein segurtasun eta estandar kalitate faltagatik da. Horregatik, LUB-en gure produktua pertsona aktiboek zuzendu diegu bizitza duin eta seguru bat izan dezaten.

Txirrindularitza pasioz bizitzen den kirola da, horregatik gure produktuak pasioaren muga mugatuta ikusi dituztenentzat bideratu dugu, hau da, txirrindularitzaren jarraitzaileentzat.